

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure funtsezko jarduera ekoizpena da, hau da, manufaktura-enpresa bat gara, karro autonomoak diseinatzeko, ekoizteko eta entregatzeko betekizunak dituenak. Egia da ekoizpena bera Zonzini enpresaren eskuetan dagoela, edonola ere, material zein diseinu guztia gure esku dago. Hala ere, oso garrantzitsua da enpresaren webgunea eta on line denda kudeatzeko, mantentzeko eta sustatzeko jarduera ere. Bezeroen zalantzak argitu eta arazorik ez dagoela ziurtatzea azken finean.

Ekoizpen prozesuari dagokionez, hainbat puntu hartu behar dira kontuan: Lehenik eta behin, guk Zonzini enpresari diseinua bidaltzen diogu, haiek Italian ekoitzi ditzaten karroak. Ondoren, itsasontziz Pasaia edo Bilboko portuetara iritsiko lirateke, eta bertatik gure biltegiara (hau egiteaz guk kontratatutako garraio enpresa arduratuko da). Behin produktua biltegiara dagoela, karroa saltzen den dendetara zabalduko dira, bertako eskaeraren arabera. Era berean, on line egiten diren erosketak ere etxeetara zabalduko dira. Hori guztia ere garraio enpresaren esku geratuko da.

Horrez gain, beste hainbat jarduera ere kudeatzea garrantzitsua da enpresak behar bezala funtzionatzeko. Horien artean, marketina eta diru kontuak daude. Iragarkiak kumatzeaz eta irabaziak eta galerak aztertzea beharrezkoa da.

Azkenik, denak ongi funtzionatu dezan, enpresa aliatuekin kontaktua mantentzea ezinbestekoa da, eta hortaz arduratuko gara gu, beste hainbat gauzetaz gain.